

Eibartarrentzako aukerak

1-. AURREKARIAK-NONDIK GATOZEN.....	1
2-. EGUNGO EGOERA.....	2
2.1-. Datuak. Irakurketa logikoa.....	2
2.2-. Datu FISIKOAK. Eibarko mapan ikastetxeak kokatu.....	5
2.3. Maparen BEHARRAZ.....	7
2.4.- Gaizki egindakoaren analisia.....	8
3-. MAPA-PROPOSAMENA.....	9
3.1-. DBH eta Batxilergoko Ikastetxeak bateratzea.....	13
3.2-. DBH eta LH bateratzea. Batxilergoen fusioa.....	14
3.3-. MAHAI GAINEKO TRESNAK.....	16
4-. GURE PROPOSAMENEAN ALDE BATERA UTZI DITUGUN ZENBAIT IDEIA.....	17
5-. BIBLIOGRAFIA.....	18

1-. AURREKARIAK-NONDIK GATOZEN

1996. DBH ezartzen da. Itzio BHI eta Armeria BHI (aurrerago Mogel Isasi BHI bihurtuko dena) sortzen dira.

2009. Dekretu berria, zeinak ezartzen duen DBHko ikastetxeek LHko edota Batxilergoko ikastetxeekin bateratu beharra.

2014-2015 Hezkuntza zeinbait ikastetxerekin biltzen da. Maparen beharraz jabetzen hasten dira.

2015eko azaroa. Maparen gaia oso garatua eta aurreratua dago. Proposamen bakarra mahai gainean. Makrofusioa.

2-. EGUNGO EGOERA

2.1-. Datuak. Irakurketa logikoa

2014-15ko egoera. Eibarko ikasle etorkinen matrikulazioa.

Herria	Ikastetxe KONTZERTATUAK	Ikasleak	Etorkinak	%
Eibar	LA SALLE-ISASI (HH eta LH)	504	7	%1,4
Eibar	SANTA M ^a DE LA PROVIDENCIA	455	20	%4,4
	Guztira	959	27	%2,82

2.1 Taula

Herria	Ikastetxe PUBLIKOAK	Ikasleak	Etorkinak	%
Eibar	CEIP AMAÑA HLHI	194	70	%36,1
	CEIP SAN ANDRES HLHI	467	64	%13,7
	CEIP URKIZU HLHI	294	73	%24,8
	CEIP ARRATEKO ANDRA MARI HLHI	191	70	%36,7
	CEIP J.A.MOGEL IKASTOLA HLHI	734	19	%2,6
	IES ITZIO BHI	272	38	%14
	IES MOGEL ISASI BHI	266	22	%8,3
	Guztira	2.418	356	%14,72

2.2 Taula

Horrako taulan, garbi ikusten da jatorri-etorkinen matrikulazio-kopuruen arteko desoreka. Egun J.A. MOGEL Ikastolan dagoen etorkin-kopuru urria NABARMENDU egiten da da herriko beste ikastetxe publikoekin konparatuz gero.

DBHko ikastetxeetan, ordea, aldea askoz txikiagoa da: oraingoz Itziok ikasle-kopuru handiagoa du, eta, horrekin batera, etorkin-ratio altuagoa. Egia da, gaur egun LH-DBH ibilbide-dinamika apurtzen ez bada, orduan, hemendik eta zenbait urte barru aipatutako jatorri-etorkineko matrikulazioaren inguruko desorekak DBHn ere ikusiko direla.

2014-15ko egoera. Eibarko ikasle-etorkinen matrikula kontzertatuak eta publikoak.

	LH		
	Ikas Kop.	Etorkinak	%
Ikastetxe Publikoak	1882	334	%17.75
Ikastetxe kontzertatuak	771	14	%1.82

2.3 Taula

LH ikastetxeetan etorkinak

	LHn Etorkinak
--	---------------

	LH	%
Ikastetxe Publikoak	334	% 95.97
Ikastetxe kontzertatuak	14	% 4.02
Guztira	348	

2.4 Taula

*Datu horiek Hezkuntza Sailaren Estatistika Zerbitzukoak dira eta GIPUZKOA-BAIKARAKO GURASO-ELKARTEEN FEDERAZIOAK Gipuzkoako eskualde guztietan banatu ditu.

Goian aipatu bezala, puntu honetan ere garbi ikusten da etorkin-kopuruen arteko desoreka sare publiko eta kontzertatuaren artean. Pribatuko etorkin-kopuru urria NABARMENA da ikastetxe publikoarenarekin konparatuz gero¹; onartezina.

Honez gain gogoratu beharra dago, 2007ko azaroan, Bilbon egin ziren “Euskara-, inmigrazioa- eta hizkuntza-eskubideak” lan jardunaldietan, zenbait ikastetxetan gertatzen den “ikasle-etorkinen kontzentrazioei buruz” esandakoak:

Egungo egunean gizartean susmoa dago haur etorkinen familiak ikastetxe mota batzuetara bideratzen direla berariaz, honek dakartzan arazo guztiekin (haur etorkinen larregizko kontzentrazioa, A ereduaren getizazio prozesua, ...). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arduradun den Alberto Agirreazaldegik gogoratu egin zuen, Hezkuntza Sailburuaren esanetan, aurrerantzean ez dela %30etik gorako kontzentrazioarik onartuko Erkidegoko ikastetxeetan. Nolanahi ere, zenbait partaideren iritziz, kontrolerako neurri zehatzagoak hartu beharko lirateke eskolatzeko-batzordeen bitartez.

Eskola-maparen azterketa honekin proposamen honetan ez da errudunik bilatu nahi, baina kritika eta autokritikarako deia egin nahi da, aurrekoetan egindako akatsak ez errepikatzeko.

2015-16ko egoera. Eibarren, 2015eko abendura bitartean, ikasturtean zehar –epe ofizialekin kanpo– matrikulatutako ikasleak.

IKASTETXEAK	Ikasleak
CEIP AMAÑA HLHI	2
CEIP SAN ANDRES HLHI	7
CEIP URKIZU HLHI	8
CEIP ARRATEKO ANDRA MARI HLHI	8
CEIP J.A.MOGEL IKASTOLA HLHI	1
IES ITZIO BHI	4
(EI y EP) LA SALLE-ISASI (HH eta LH)	2
(ESO) SANTA MARIA DE LA PROVIDENCIA (DBH)	3
	35 etorri berriak

2.5 Taula

¹Imanol Zubizarreta Baikara Gipuzkoako ikasleen gurasoen federazioko lehendakariaren ustez, datu kezagarriak dira horiek: «Bost urteko epean lau puntu eta erdi igo da sare publikoan ikasten duten ikasle etorkinen kopurua. Horrela jarraituz gero, ikastetxe publikoetan ikasle etorkinen pilaketak sortuko dira».

Horrez gain, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %20tik gorako ikasle etorkin kopurua duten 62 ikastetxe daudela ere azpimarratu du, eta horrek arazo bat dakarrela: «Adituen arabera, portzentaje horretatik gora oso zaila da ikastetxeko ikasleriaren aniztasuna kudeatzea». Ez hori bakarrik, Gasteizko hainbat ikastetxetan duten egoera larria ere aipatu du. Izan ere, datuek diotenez, hiri horretan familia etorkinetako umeen %95 sare publikoan daude.

(http://www.berria.eus/paperekoa/1851/005/001/2016-03-17/ehigek_eskatu_dio_itunpeko_sareari_etorkin_sendien_ikasle_gehiago_izateko.htm)

Eibarko Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntzako ikastetxe publikoen egoera. Hurrengo 10 urteetako ikasleria potentziala.

Ikasturtea	Amaña	Arrateko	Mogel	S. Andres	Urkizu		Taldeak
2016-17	16	16	77	49	18	176	8
2017-18	16	23	76	50	23	188	8
2018-19	23	16	76	47	32	194	8
2019-20	20	17	76	50	34	197	8
2020-21	19	20	75	46	30	190	8
2021-22	17	20	71	38	22	168	7
2022-23	18	28	77	45	46	214	9
2023-24	24	20	69	46	36	195	8
2024-25	19	26	69	44	19	177	8
2025-26	14	16	72	43	9	154	7
2026-27	10	8	73	32	20	143	7

2.6 Taula

Eibarko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoen egoera.

IES MOGEL ISASI BHI

Ikasturtea	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		DBH Guzt	
	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.
2015-16	76	3	77	3	61	3	56	3	270	12
2016-17	91	4	76	3	77	3	61	3	305	13
2017-18			91	4	76	3	77	3		

2.7 Taula

DBHko 12 taldeei curriculum desberdineko beste talde bat gehitu behar zaie. Gaur egun, eraikin bakarra da, eta jardunean diharduen 16 unitateko edukiera du, baita jangela-zerbitzua ere. Eraikinak hainbat matxura ditu, eta aurreikusita dago kanpokoaldeko fatxada-, zorroten-, zoru- eta isolamendu-konponketei ekitea.

IES ITZIO BHI

Ikasturtea	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		DBH Guzt	
	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.
2015-16	98	4	68	3	56	3	67	3	289	13
2016-17	76	4	98	4	68	3	56	3	298	14
2017-18			76	4	98	4	68	3		

2.8 Taula

DBHko 13 talde dituzte batetik, eta curriculum desberdineko bi talde eta ZIGeko gela bat bestetik. Beraz, 2016-17 ikasturtean 16 taldek jardungo dute denera.

IES ITZIO DBH ikastetxeak bi eraikin ditu: ITZIO eta ALFA. ALFA eraikinak DBHko 1. zikloko 8 gela ditu. Eraikin horrek matxura asko ditu eta irisgarritasuna bermatzeko zailtasun nabariak. Baliospen tekniko bat egiteke dago oraindik –Eibarko DBHren ibilbideari buruz hartuko diren irizpideen arabera izango da–. ITZIO eraikinean DBHko 3. eta 4. mailako taldeak, curriculum desberdineko gela bat eta ZIGko gela bat daude. Eraikin horretan irisgarritasuna bermatzeko zenbait hobekuntza-lan egin dira, eta askotariko erabilerarako gela bat dago aurreikusita.

IES I. ZULOAGA BHI

Ikasturtea	BTX. 1 D		BTX. 2 D		BTX Guzt	
	Ikas.	Ikas.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.
2015-16	16	20	18	2	112	4
2016-17			16	20	18	2

2.9 Taula

Zuloaga eraikina Itzio eraikinetik **400** metrora dago. 8 gela gehiago ateratzeko aukera dago.

IES Uni Eibar Ermua BHI

Ikasturtea	BTX. 1				BTX. 2 D				BTX Guzt	
	Ikas.	Ikas.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Ikas.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.
2015-16	20	40	33	4	38	39	27	5	112	4
2016-17					20	40	33	4		

2.10 Taula

Horrez gain, Uni Eibar-Ermua ikastetxeak erdi mailako 4 heziketa-ziklo eta goi mailako 7 eskaintzen ditu. 2015-2016 ikasturtean Lanbide Heziketaren eremuan 410 ikasle izan ditu 20 taldetan banatuta. Eraikinak ditu Eibarko Hezkuntza Esparruan eta Ermuan.


2.2-. Datu FISIKOAK. Eibarko mapan ikastetxeak kokatu.

Eibar bailara batean kokatuta dago, eta horrek bere fisionomia erabat baldintzatzen du. Eibar bailara zeharkatzen/jarraitzen duen Ego Ibaiaren gainean eginiko GEZI itxurako hiri bat da. Luzekina eta apenas zabalerarik duena, zabaltzen joan ahala mendian gora hasten baita.


Hona hemen satellite bidezko irudi bat.



Irudi bera, “mapa gisa” begiratzuz gero, garbiago ikusten da oraindik Eibarren itxura. A8 autopista eta N634 errepideen bitartean gelditzen den hiria.



Hona hemen, Eibarko HH-LH ikastetxeen kokagunea:



HH eta LHko ikastetxeen kokapenari begiratuz gero, eta era beran goiko 2.2 taulako datuekin alderatuz gero, hiriko muturretan kokatutako HH-LH ikastetxeek besteek baino ikasle gutxiago dituzte, baina ikasle-etorkinen kopuruak nabarmen altuagoak dira. Eraikinak dauden tokian egonda, Amañak eta Urkizuk beti herriko auzo periferikoetako ikasle gehiago izango dituzte. Beste ertz batean Arrateko Andra Mari ikastetxea dago.

Aitzitik, bai J.A. Mogel, bai San Andres ikastetxeek, erdiguneko ikasleak jasotzen dituzte batik bat, eta erdiguneko biztanleriaren artean etorkinen batezbestekoak behera egiten du.

EAEn bezala Eibarren ere, etorkinak hiriko kanpoaldeetako auzoetan bizi izan ohi dira, eta biztanleriaren kokaguneak zeresan zuzena du auzoetako eta zonaldekako ikastetxeetako matrikulazioarekin. Beraz, etorkinen auzia eta haien gizarteratzeak ez du soilik zerikusirik Hezkuntza Saitetik egindako eskola-mapekin; alegia, ez duela eskola-mapa baten berriztatze hutsak aldaketarik eragingo. Arazoa larriagoa da eta eragile gehiagok hartu behar dute parte prozesuan desorekak desagertarazi nahiko badira.

2.3. Maparen BEHARRAZ.

Aztertutako datuei kasu eginez gero, ikastetxeetako matrikulazioetan nabaria da atzerriko jatorridun ikasleen kopuruen arteko ezberdintasuna –ez horrenbeste gaur egun DBHko ikastetxeetan, bai ordea HH eta LHko ikastetxeetan–, eta desoreka horrek datorren urteetako Eibarko eskola-mapari ez diola mesederik egingo.

Beraz, egoera horretan eragin beharra dago; orain arte lehentasuna Ikastetxeeko Proiektu sendoak eta arrakastatsuak egitea izan da. Bide horri jarraituz, proiektuak oinarri hartu eta aniztasunari behar besteko bultzada eman behar zaie.

Hala ere, ezin da ahaztu, etorkinen matrikulazioaz ari garenean, ikastetxe kontzertatuen eta publikoen artean dagoen aldeaz. Ezin da onartu, datozen urteei begira batik bat, LHn dagoen desoreka: ikastetxe publikoetan ikasleen (%18) eta pribatuetan (% 2) artekoa (ikusi 2.3 taula) eta baita sare publiko-pribatu artean %96-%4 (2.4 taula).

Gasteizko zenbakiekin dabil Eibar, eta berriki bertan izan diren arazoak saihestea derrigorrezkotzat jotzen da.

Beraz, eskola-maparen beharra garbi ikusten da.

2.4.- Gaizki egindakoaren analisia

Berriro akats berdinak egin ez daitezzen, hona hemen analisi txiki bat gaizki egindakoen harira.

- Itziori 4. lerroa (2014-2015 ikasturtean). Mogel-Isasi izanik “gelak beteta” zeuzkana, 4. lerroa Itziori emateak arazoa areagotu besterik ez du egin.
 - LaSalle ikastetxeko Batxilergo artistikoa 2016-2017 ikasturtetik aurrera jasotzeko aukera. Itunpeko ikastetxeetako ikasleak hezkuntza publikora bueltatzeko aukera bat galduz.
 - Bai itunpeko ikastetxeetan, bai publikoetan etorkinendako “gordetako kuota” sistemak huts egin du. Ikastetxeetako etorkin portzentaiak ikustea besterik ez dago. Ikastetxeetako matrikulak egiterakoan zerrenden kudeaketak (baremazioek) huts egin du.
 - Ikasturtea behin hasita, epez kanpo matrikulatutako etorkinak banatzeko sistemak huts egiten du, berez etorkin gehien zituzten ikastetxeei “are gehiago” gehitu zaizkielako. (2.5 taula)
 - Egungo maparen “zurruntasuna”. Mapak malgua behar dugu gizartean sortzen diren berrikuntzei erantzuteko.
 - Analisi sakonago baten falta. Diagnosi bat egin beharko litzateke zenbait guraso-elkartek eskatutakoaren harira². Urtez urte ikastetxe bakoitzak izan dituen matrikularen zergatiak (bereziki LHn) egiteke gelditzen dira, eta horrek datu horrek ezinbestekoak dira, ezer berria sortzen hasi aurretik.
- Are gehiago, beharrezkoa litzateke baita ikastetxe kontzertatuetako urtez urteko matrikulazioa nolakoa izan den ikustea, eta haien ikasleak zein auzotakoak diren aztertzea. Besteak beste, zein auzotako ikasleek egiten duen “ihes” ikastetxe kontzertatuetara. Kontzertatuak ez badira mapan sartzen, efektu horrek bere horretan jarraituko du, eta zenbait ikastetxe txikik ez dute aldaketarik igarriko etorkizunean.

² Gehigarrian atzekitzen dira Guraso Elkarte batzuetatik “analisi integralak” egiteko eskaera dokumentuak

3-. MAPA-PROPOSAMENA.

2009ko Dekretua kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak egituratu izan dituen eskola-mapak bi eredutan sailka daitezke:

- 1-. Herri txiki eta ertainetan, oro har, ikastetxeen bateratzeak hobetsi dira: Hernaniren eta Lasarteren kasuak.
- 2-. Hiri handi eta hirietan auzo-ikastetxeak sortu dituzte. Ikastetxe bakoitzak bere auzoaren (edo inguruko auzoen) beharrei erantzuteko; hala nola, Donostiako Altza edo Antiguoko ikastetxeak.

Aukera hau garatzean, besteak beste, kontuan izan da “*Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak*” dokumentua, ISEI-IVEI 2012an argitaratua; dokumentuko “Jardunbide egokien zerrenda” atalean bereziki erreparatuta.


Beraz, proposamen honetarako kontuan izan nahi dira, batetik “Eskola handien eta eskola-pertenentzia inguruko” ikerketetak; eta, bestetik, Eibarko datuak, alegia Eibarko bizilagun-kopurua (hiri ertain-haundia) eta Eibarko orografia. Gauzak horrela proposamen honek Eibar bi gunetan banatzea proposatzen du: **Ekialdea** eta **Mendebaldea**.

Gaur egungo HH-LHko Eibarko eskola-mapan, etorkinen aldagai kontuan hartzen bada, etorkinak bereziki 3 ikastetxetan pilatzen direla ikus daiteke: Amaña, Urkizu eta Arrateko Andra Marin. Aldiz, beste 2 ikastetxe publikoek (handiagoak izanik eta erdigunekoak) etorkin-kopuru txikiagoak dituzte.

Beraz, proposamen honek jasoko luke erdiguneko ikastetxe bakoitza bere zonaldeko ikasteteeekin batzea eskola-ibilbide berean, honela: Urkizu-San Andres batetik, eta Amaña-Mogel bestetik, eta, azkenik, Arrateko Andra Mari ikastetxea giltzarri litzateke, eskola-maparen joeren oreka ezartzerako orduan –Arrateko Andra Mariko ikasleek DBHko ikastetxea aukeratzeko aukera izango lukete–.


Egun Itzio ikastetxearen Alfa eraikina konpondu beharra dago, eta, beraz, Itzio BHI ikastetxeak espazio arazoak izango dituela aurreikusten da, behinik behin epe ertainean eta gela-kopurua mantentzeko; ondorioz, Arrateko Andra Mariren Ibilbidea, Amaña eta Mogel ikastolaren ibilbidearekin lotzea hobesten da.

LH loturak horrela eginez gero, **Mendebaldeko** 3 ikastetxeek (Mogel Ikastola, Arrateko Andra Mari eta Amaña) egungo Mogel-Isasi eraikinean egingo lukete DBH, 5 lerrotan. **Ekialdeko** 2 ikastetxeek (Urkizu eta San Andres), egungo Itzioko eraikinean egingo lukete DBH 3 lineatan.



Etorkinen banaketari dagokionez, konponketa horrek ikastetxe berri biak egoera berdintsuan utziko lituzke etorkinen aldagaiak kontuan izanda.

Honako taula honetan, deigarria da ikastetxe kontzertatuen batezbestekoa, etorkinen aldagaiari erreparatuz gero.



4. DBH eraikin berean egitearen abantailak jakin arren, Hezkuntza Sailak zenbait herritan proposatutako planetan, 4. DBH gelak Batxilergoko eraikinetara eramatekoa asmoa sumatzen da, ikasleak batxilergoko ikastetxeetara bideratzeko; beraz proposamen honek ate hori ere irekita uzten du³.

³ 4. DBH, DBH eraikinetan txertatzea balitz Hezkuntza Saileko teknikarien arabera, ez legoke arazorik egungo Mogelen 5x4 eta Itzion 3x4 bat antolatzeko espazio ikuspuntutik zenbait konponketa eginez gero.

Kasu horretan, eraikinen ikuspuntutik **Mendebaldeak** (Mogel Isasi eraikinak) 5x3 gela beharko lituzke eta **Ekialdeak** (Itziok) 3x3 gela.

2022-2023 ikasturtean (ikusi 2.5 taula) 9 talde aurreikusten dira DBHn. Ordurako Ekialdeak 4. lerro horretarako espazioa izan beharko luke. Hortik aurrera, helburua ikastetxe biek 4-4 lerroekin mantentzea litzateke helburua (5-3 beharrean).

Horrez gain, honako 2009ko otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuak dio:

Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera, hezkuntzak komunitatearen funtsezko zerbitzua izan behar du jende guztiarentzat, inolako bereizketarik egin gabe, baldintza eta aukera berdintasuna eskainiz, eta erregularatasuna, jarraikortasuna bermatuz eta gizarte-aldaketei progresiboki egokituz. Lege horretan ezarrita dagoenez, hezkuntzarako zerbitzu publiko hori ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez eman beharko da (108.4 artikulua).

Alde horretatik, unibertsitatez kanpoko herri ikastetxeak berriz antolatzen dituen 26/1996 Dekretuan ezarrita dagoena baino harantzago hedatu behar da. Hori dela eta, itunpeko ikastetxe pribatuak antolamendu horretan sartu behar dira erantzulekide bezala, hezkuntzaren zerbitzu publikoa emateko orduan.

Oinarrizko araudi horretan (109.2 artikulua) ezarrita dagoenez, hezkuntza-administrazioaren lana da derrigorrezko eta doako etapak ematen dituzten ikastetxeen programazioa egitea. Ikaspostuak eskaintzeko programazio horretan, hezkuntza-administrazioak, ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak daudela kontuan izanik, jende guztiak kalitatezko hezkuntza izateko duten eskubidea eta ikasleen eskubideak eta horien familienak uztartuko ditu.

Aurrera egin aurretik, egin dezagun tarte txiki bat ikastetxe publiko eta kontzertatuen arteko ezberdintasunei eta ardurei erreparatzeko. Eskola-mapa berraztertzerako orduan, Eibarko errealitateari erreparatuz gero, ikastetxe publikoen berregituraketa soilik egitea akats larria da, eta epe ertainera gaur egungo kezka eta arazoa iraunarazi besterik ez du egingo. Itunpekoek/Pribatuek ere mapa honetan parte hartu behar dute eta haien erantzunkizunen jabe egin behar dira; 21/2009 Dekretuan dioen bezala eragile-arduradun direlako.

Aztertu beharreko beste puntu bat DBH ikastetxeek beste maila bateko ikastetxeren batekin izan behar duen derrigorrezko lotura da. Hala dio 21/2009 Dekretuak DBH ikastetxeak beste maila bateko ikastetxeren bati lotu beharraz –Eibarko ikastetxeek ez dute baldintza hori betetzen, “ez-legean” daude–:

6. artikulua.

Ikastetxe publikoen motak.

1.– Araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten unibertsitateaz besteko ikastetxeen sare publikoan, honako ikastetxe hauek izango dira:

- a) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, 2 eta 12 urte bitarteko ikasleak eskolatzen dituztenak eta Haur Eskola publikoak beraiei atxikita dituztenak.*
- b) Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, 12 eta 18 urte bitarteko ikasleak eskolatzen dituztenak.*
- c) Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuak.*

2.– Ahal denean, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza Ikastetxe Publikoak sortzea sustatuko da, bertan 2 eta 16 urte bitarteko ikasleak edo, behar bada, 18 urte arteko ikasleak eskolatzeko. Ikastetxe horiek izango dute proiektu bat, hezkuntza-etapa desberdinak barne hartuko dituena, eta atxikita eduki ahal izango dituzte Haur Eskola publikoak

Laburbilduz, DBH ikastetxeak gorantz (batxilergoa) edo beherantz (LH) bateratu behar dira. Ezin dira orain arte bezala haiek bakarrik eratu.

Uni Eibar-Ermua ikastetxeak, martxoak 9ko bileran, ofizialki “Eibarko eskola-mapan” sartzeko gogoia adierazi zuen. Horrek guztiak jokoa ematen du eta bi ate irekitzen ditu:

3.1-. DBH eta Batxilergoko Ikastetxeak bateratzea.

Eibarko mapa geografikoakn erraz nabarmentzen dira 2 ikastetxe berriak. **Ekialdekoa** eta **Mendebaldekoa**:

-Ekialdekoa. Egungo Itzio eta Zuloaga eraikinek osatuko lukete, haien oinarritzko ikasle-iturria Urkizu eta San Andres LH ikastetxeetatik etorritako ikasleak izanik.

-Mendebaldekoa. Egungo Mogel-Isasi eta Uni Eibar-Ermuak osatuko lukete. Oinarritzko ikasle-iturria J.A. Mogel, Amaña eta Arrateko Andra Mari.

Behar izanez gero, ez Zuloagako oraingo eraikinak, ez Unikoak, ez lukete arazorik izango dagozkien 4. DBH gelak jasotzeko.

Proposamen honen indarguneak:

- Ikasleen bertikalidadea mantentzen da.
- PEDAGOGIKOKI. Aukera handiagoa aukerako ikasgaiak aukeratzeko, talde bereziak antolatzeko, taldekatze-egoera ezberdinak eta erantzun anitzak eskaintzeko,...
- CURRICULUMA: Aukera aniztasuna era zabalean eta anitzean heltzeko aukera; bai baliabideak, bai bitartekoak hainbat eratan antolatzeko eta kudeatzeko ikastetxeko Proiektu Estrategikoan landuz.
- IRAKASLEENTZAKO ABANTAILAK. Batxilergoarekin bat egitean irakasleen gaitasuna eta prestaketa- edo formazio-egoerak hobetzera egingo du. Aukeran DBHn edo batxilergoan eman ditzake eskolak. Klaustro tamaina ertainak izatera, adostasunerako erraztasunak ematen ditu eta, ezagutza eta profesionaltasuna elkarlanean jarritz, aukera berriak eta berritzaileak ere ahalbidetzen dira.
- IKASLEENTZAKO ABANTAILAK. Bigarren Hezkuntza bere osotasunean, derrigorrezko etapa eta batxilergoa. Espazio eta instalazioen erabilera erosoak. Irakasle anitz eta berriak jakintzagaietan eta curriculum ezberdinetako programetan. Ikastetxeak etxetik hurbil eta tamaina ertaina, irakasleekiko harremana urte urte jorratzeko aukera.
- Bi ikastetxek, bi ibilbide ematen dituzte, ikastetxeen arteko "konpetentzia osasuntsua" bermatuz eta haien hobetzea modu naturalean sustatuz. Horrez gain, nork bere ezaugarri propioak izango ditu Plan Estrategiko propioak garatzeko, eta herriko hezkuntza publikoa aberasteko.

3.2-. DBH eta LH bateratzea. Batxilergoen fusioa.

21/2009ko Dekretuko 6. artikulua 2. puntuan (goian azaltzen denak), garbi azaltzen du "Ahal den neurrian" 2-16 ikastetxeak hobesten direla. Hau da, bateratzeak LH-DBH egiteaz. Datuak begiratzuz, eta etorkinen aldagaia kontuan izanda, arazo nagusia LHn sortzen da. Bertan agertzen dira ikastetxeen arteko desberdintasun nabariak; beraz zaila da benetako konponketa bilatzea, LHko ikastetxeak kontuan izan gabe.

Gaur egungo Mogel Ikastola, Arrateko Andra Mari eta Amaña eraikinak bateratu beharko lirateke HH-LHn, aurrerago oraingo DBHko Mogel Isasi eraikinean biltzeko, guztien artean **MENDEBALDEA** ikastetxea sortuz. Bestalde, HH-LHko Urkizu eta San Andres eraikinak, eta DBHko Itziok, **EKIALDEA** ikastetxea sortuko lukete.

- Alor publikoan, J.A. Mogel da etorkin kopuru baxuena duen ikastetxea. Baina baita LHn AUTOBUS zerbitzua duen bakarra, hau da, Eibarko "kasik" edozein auzotara heltzeko aukera du eta bertako ikasleak hartzekoa.
- HH-LH ikastetxeak etxeetatik hurbilen daudenak dira. Honek "zaildu" egiten du ikasleen banaketa adin horietako ikasleekin.
- LHko hainbat ikastetxe fusionatu ondoren ere, eraikin berak (edo beretsuak) izango lituzkete. Jakina, hori guztia kudeatzeko tresnak eta erraztasunak sortu behar dira.

Era berean, Zuloaga eta Uni Eibar-Ermuako batxilergoak bateratuko lirateke. Haiek (eta Hezkuntza sailak) adostuko dituzte taldeak nora eraman, zeintzuk eraikin erabili, nola banatu taldeak....

Adostu beharrekoen artean legoke honako hau: 4. DBHko ikasleak batxilergoko ikastetxe berrira eraman edo ez. (Mapa Proposamen honen helburua, DBHko planteamentuak egitea denez, batxilergoen bateratzeen ondorioak beste dokumentu baterako utziko dira).

LH-DBH, proposamen honen indarguneak:

- Ikasleen bertikalidadea mantentzen da, maila hauetan oso garrantzitsua delako.
- PEDAGOGIKOKI. Hezkuntza proiektuek jarraitasun logiko bat dute LH eta DBH artean. Bai **Mendebaldeko BHik** eta **Ekialdeko BHik** haien esperientzia propioak eta ezberdinak jorratzeko aukera izango lukete, hala nahi izanez gero. Hona hemen esandakoaren bi adibide:
 - egungo Mogel Isasik, Auspoa proiektua du gidari. Bertan arratsaldeetan ikasleek hautazko irakasgai edo tailerrak dituzte, eta errefortsuzko eskolak jasotzen dituzte.
 - Egungo San Andres ikastetxeak PROIEKTUKAKO irakaskuntza du oinarri. Bertan ikasleek etxekolan gutxirekin eta apenas liburuak erabili gabe ari dira. Goiko adibide biak, adibideak dira soilik; horrek ez du esan nahi Mendebaldeko ikastetxeak ildo bat eta Ekialdekoak beste bat jarraitu behar dutenik. Ikastetxeak bateratzean, nork bere proiektu pedagogikoa zehaztu beharko du, eta horrek emango dio ikastetxeari bere lan ildoak. Proiektu horiek ikastetxe bakoitzaren Organo Gorenak zehaztuak izango dira.
- CURRICULUMA. Aukera aniztasuna era zabalean eta anitzean antzeko modua; bai baliabideak, bai bitartekoak hainbat eratan antolatzeko eta kudeatzeko aukera, guztia ikastetxeko Proiektu Estrategikoaren baitan.

- IRAKASLEENTZAKO ABANTAILAK. Klaustroaren tamaina ertainak, elkarlanerako erraztasunak ematen ditu eta, ezagutza eta profesionaltasuna elkarlanean jarritz, aukera berriak eta berritzaileak ere ahalbidetzen ditu. Horrez gain, ikasle-guraso-irakasle erlazio hobetzeko lana ere erraztu egiten du.
- IKASLEENTZAKO ABANTAILAK. Espazio eta instalazioen erabilera erosoak. Irakasle anitz eta berariazkoak jakintzagaietan eta curriculumaz ezberdinetako programetan. Ikastetxeak etxetik hurbil eta tamaina ertaina izatera, irakasleekiko harremana urte jorrazteko aukera.
- Bi ikastetxeek, bi ibilbide ematen dituzte, ikastetxeen arteko “konpetentzia osasuntsua” bermatuz eta haien hobetzea modu naturalean sustatuz. Horrez gain, nork bere ezaugarri propioak izango ditu Plan Estrategiko propioak garatzeko, eta herriko hezkuntza publikoa aberasteko.

Edozein izanik ere aukeraketa, LH+DBH edo DBH+Batxilergoa, tamaina ertaina duten ikastetxeak direnez onura hauek azpimarratu nahi dira:

1-. ***Ikastetxeek ikusmolde eta filosofia propioa dute, argi definitua eta partekatua. Zuzendaritza taldea eta klaustroa bat datoz ikusmolde horretan, eta horren ondorioz helburuak eta helburuak lortzeko baliabideak argi finkaturik daude.*** “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak”. Jardunbide egokien zerrenda. ISEI-IVEI, 2012.

2-. ***Ikastetxearen pertenezia sentimenduaren garrantzia ikasketetan. Irakasleen pertenezia sentimendua nabaritu egiten da.*** “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak” ISEI-IVEI 2012

3-. Proposamen hau “malgua” da eta ez dago itxita.

3.3-. MAHAI GAINEKO TRESNAK.

Sistema honek ondo funtzionatu dezan, Hezkuntzak zenbait prozesu egoki bideratu behar ditu, honezkero bereak dituenak:

1. Kuota sistemak, matrikula egiterako unean. Urte hortan Eibarri dagokion ratioa kalkulatu eta matrikula garaian aplikatu.
2. Epez kanpo matrikulatutako ikasleak (begiratu 2.5 taula), oso aukera ona dira mapa malgu bat antolatzeke, haiek ez baitute ikastetxea aukeratzen, Hezkuntza Sailak erabakitzen baitu zein ikastetxe dagokion ikasle berri bakoitzari. Horrek HHko matrikuletan “Kuota kontuekin” eginiko hutsegiteak zuzentzeko tresna ona eskaintzen du.

Ikasle etorkinei ematen zaien erantzunaren kasuan, nabarmendu diren ikastetxe askok ikasleentzako eta familientzako harrera planak eta protokoloak dituzte; orobat, kultura-artekotasunaren garrantziaz jabeturik, landu egiten dute.⁴

Udal mailan egindako Harrera planak beharrezkoak dira. Familia horientzat “3 urteko planak” eginaz herrian errazago integratu daitezke. Kasu hauetan, ez da soilik ikaslea kontuan hartu behar, baita familia ere. Eman dezagun ohiko adibide bat: ikasleek etxerako lanak izaten dituzte, eta familiekin ez dute euskara jakiten gehienetan. Muga horiek gainditzeko Udalak hartu behar du ardura hori bere gain., askotariko laguntzak eskainiz.

Ikastetxe txiki-ertainetan, ***Pertenentzia sentimendua*** aztertzean, ***irakasleak bat datoz ikastetxearen nortasun eta ideologiarekin, ikastetxea eta proiektua bere egiten dute, eta “familia bat” bailitzan hartzen, ikastetxeko proiektuarekin bat datoz eta proiektuan sinesten dute.***⁵

3. Eibarren ikastetxe-eraikinen erabilera aztertzeke dago. Eraikinen (eta izango dituzten) erabilpenen berrikusketa egiteke dago. Itzioko Alfa eraikina konpondu? Irale, Berritzegunea edo Hizkuntz Eskola beste eraikin batzuetara eraman lekua egiteko?

⁴ “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak” ISEI-IVEI 2012

4-. GURE PROPOSAMENEAN ALDE BATERA UTZI DITUGUN ZENBAIT IDEIA

Aurretik aipatu den bezala, Hezkuntza Sailak Makrobateratzeen alde egin du zenbait kasutan. Kasu honetan, ez dugu ontzat ematen besteak beste arrazoi hauengatik:

1. Hiru eraikinen arteko irakasleen joan-etorriak. Honek irakaslegoaren prekarizazioa ekarriko du eta ondorioz klaustroen ezegonkortasuna.
2. Bullying-aren ikuspuntutik: **Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasle erasotzaileen % 24 eta DBHko ikasle erasotzaileen % 23,9 ez dira biktimaren ikastaldekoak, baina bai irakasmaila berekoak**. "Ikaskideen arteko tratatu txarrak". ISEI-IVEI 2012.
3. Javier Elzo: **"En diferentes congresos he presentado una tipología de cuatro modalidades de violencia en relación a la escuela. La violencia interna asociada a la masificación, a los problemas inherentes a la propia estructura escolar, a los conflictos entre los objetivos manifiestos y las estructuras latentes del sistema escolar"**. "Convivencia y conflictos en los centros educativos". Informe extraordinario al Parlamento Vasco. Ararteko.
4. Eskolaren tamaina handitzean ikasleen eskolako ekintzetako partaidetza gutxitzen da, asistentzia ere gutxitzen da eta kaleratzeak gehitu egiten dira.⁵ **School Size and Youth Violence: The Mediating Role of School Connectedness. ARTICLE in NORTH AMERICAN JOURNAL OF PSYCHOLOGY · FEBRUARY 2016** (Cotton, 1996; Fowler eta Walberg, 1991; Jones, Toma, eta Zimmer, 2008; Lindsay, 1982; Pittman eta Haughwout, 1987).
5. Eskola handietako ikasleen notak eskasagoak dira eta gutxiago joaten dira unibertsitatera. (Cotton, 1996; Galletti, 1999; Pittman eta Haughwout, 1987; Ready, Lee, eta Welner, 2004).
6. **"Euskera y Mates cada vez peor"**. Cristina Uriartek: "El modelo D no garantiza la competencia lingüística" 2016-3-15, Diario Vasco.
7. Eskolako tamaina handitzen den heinean ikasleek eskolarekiko satisfazio gutxiago adierazten dute eta irakasleekin erlazio interpertsonal eskasagoak dituzte. (Bowen, Bowen, eta Richman, 2000; Cotton, 1996; Fowler eta Walberg, 1991; Lindsay, 1982; Resnick et al., 1997).
8. Horrek guztiak ikasleen emaitzen balioespenek behera egitea, Bullying arazoak gehitzeak... Hezkuntza Publikoa ahultzea dakar besteak beste; eta hainbat familiek haien seme-alabak Itunpeko Ikastetxeetara bideratzeko joera sortuko. Ondorioz, lehenago edo beranduago gaur egungo egoera baino egoera okerrago bat sor daiteke.

⁵Bowen, G. L., Bowen, N. K., & Richman, J. M. (2000). **School size and middle school students' perceptions of the school environment**. Social Work in Education, 22.

Cotton, K. C. (1996). **School size, school climate, and student performance**. Close-up #20. Portland, OR: Northwest Regional Education Laboratory.

Galletti, S. (1999). **School size counts**. Education Digest, 64(9)

Fowler, W. J., & Walberg, H. J. (1991). **School size, characteristics, and outcomes**. Educational Evaluation and Policy Analysis, 13.

Ready, D. D., Lee, V. E., & Welner, K. G. (2004). **Educational equity and school structure: School size, overcrowding, and schools-within-schools**. Teachers College Record,

Resnick, M. D, et al. (1997). **Protecting adolescent from harm: Findings from the national longitudinal study on adolescent health**. Journal of the American Medical Association,

5-. BIBLIOGRAFIA.

Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak. ISEI-IVEI. 2012.

Convivencia y conflictos en los centros educativos. Informe extraordinario del Ararteko. 2006

IKASKIDEEN ARTEKO TRATU TXARRAK.*Lehen Hezkuntzan eta DBHn.* ISEI-IVEI. 2012.

Influence of high school size on dropout rate. Educational Evaluation and Policy Analysis, 9. Pittman, R. B., & Haughwout, P. (1987).

School attendance and district school size. Economics of Education Review, 27. Jones, J. T., Toma, E. F., & Zimmer, R. W. (2008).

School size: An analysis of the research literature. B. Greeney. Jan 2014

School Size and Incidents of Violence among Texas Middle Schools. Elizabeth A. Kohler · Anthony J. Onwuegbuzie · Julie P. Combs · Rebecca M. Bustamante · Stacey L. Jun 2015

School Size and Youth Violence: The Mediating Role of School Connectedness. Adam M Volungis. North American Journal of Psychology. Feb 2016.

School Size Effects: Review and Conceptual. Jaap Scheerens · Maria Hendriks · Hans Luyten. Jan 2014

The effect of high school size on student participation, satisfaction, and attendance. Educational Evaluation and Policy Analysis, 4. Lindsay, P. (1982).

The Effect of Primary School Size on Academic Achievement.. Seth Gershenson. May 2015 · Educational Evaluation and Policy Analysis

Txosten hau idazteko, HH, LH, DBH, Batxilergo, Heziketa Zikloetako eta EHUKo irakasleen laguntza eduki da. Eskerrik asko guztiei.

Eibarren, 2016ko apirilean.